

«Liburu guztien atzean beti dago liburu ezkutu bat»

'Ogia eta zirkua' saiakeran Irati Jimenezek Harkaitz Canoren 'Neguko zirkua' liburuko ipuinen arteko lotura ustez ikusezinak aurkitu eta azaleratu ditu

NEREA AZURMENDI

DONOSTIA. Irati Jimenezek (Bermeo, 1977) bere liburuetan erakusten du nolako idazlea den. Nolako irakurlea den ikus daiteke, esaterako, 'Deabruaren eskola' sareko proiektuan. Atzo Donostian aurkeztu zen 'Ogia eta zirkua' saiakeran, berriz, bat egin dute irakurleak eta idazleak: Bilboko Udaleko Miguel de Unamuno saria irabazi zuen lanean Irati Jimenez idazleak Harkaitz Canoren (Lasarte-Oria, 1975) 'Neguko zirkua' (Susa, 2005) liburuan irakurle gisa egindako aurkikuntzak jaso ditu, narrazioen artean gordeta zegoen liburu sekretua agerraraziz.

Ereineko editore Uxue Razkinen hitzetan, Irati Jimenezek lortu du «irakurle gisa egindako hausnarketa istorio bihurtzea» eta «kontakizuna, intriga eta abentura» barne hartzen dituen saiakera idaztea. Razkinen «bidaia haluzinante»-tzat jo zuena gauzez hasi zela gogoratu zuen Irati Jimenezek, ohean zegoela, «ia ametsetan, pandemia baino lehenago».

Harkaitz Canoren ipuinak fresko zeuzkan memorian, bera arduratu baitzen Txalapartak 2018an argitaratu zuen 'Mecanografiak' antologiaren. «'Neguko zirkua' bildumako ipuinetan dagoen informazioa buruan neukan, eta derrepente etorri zitzaidan ezerezetik



Irati Jimenez. MICHELENA

OGIA ETA ZIRKUA
IRATI JIMENEZ

Generoa: Saiakera.
Argitaletxea: Erein.
Orrialde kopurua:
176.
Salneurria: 16 euro.



idea bat. Ireki zen arrakala txiki bat eta ikusi nituen eskularru batzuk, eta etorri zitzaidan burura azkeneko ipuinean bazegoela pertsona bat esposatuta», gogoratu zuen idazleak aurkezpenean. Esna edo lozorroan, ireki eta itxi ibili ziren arrakalak. «Ideien asoziazioak ez zuen etenik», eta bera joan zen ideia denak apuntatzen telefonoan.

Segituan ikusi zuen argi lane-rako hipotesia. «'Neguko zirkua'-ko ipuin bat irakurtzean nobele-

tan daukazu sententzia dauka-zu: nahiz eta ipuinak autonomoak direla jakin, hurrengo kapituluaren zain geratzen zara. Ipuin bakoitzak kontatzen duen historia aparta badago zerbait hor gertatzen dena. Protagonista inbisiblea dabil ipuin batetik bestera, abentura batean... Gauzak ikasten ditu eta transformatu egiten da», esan zuen Jimenezek liburu bilakatzeko asmorik gabe abiarazi zuen arketaren hastapenetako inpresioekin gogoratzean.

Berotasunetik egin

Konfinamenduak oparitutako astia baliatuz, oso denbora gutxian Miguel de Unamuno sariketara aurkezteko moduko saiakera bilakatu zituen inpresio haiek, Canoren liburuko 19 ipuinen artean dauden lotura ustez ikusezinak aurkituz, azaleratuz eta azalduz.

Lotura, sinbolo eta keinuen peskizan, joan zen liburuko «ganbera sekretuak» irekitzen. 19 ipuinak autopsia-mahaian zabaldu eta patologoaren erara jokatu beharrean, abenturazale baten modura abiatu zen «altxorren bila, irakurleari esango banio bezala 'deskubritu dut gauza bat...».

Hortaz, ez da aritu «hoztasunetik, baizik eta berotasunetik. Nagusitasun intelektuala eman diogu kritika negatiboari, adorea galdu dugu gauza positiboak esateko, baina analisiak berotasunetik ere egin daitezke», esan zuen.

Jatorrizko narrazioen egilea gustura dago emaitzarekin. Harkaitz Canok argi berritan ikusi ditu aspalditxoko ipuinak. Aurkikuntzaren batzuek harritu egin dute, beste batzuek ez horrenbeste, bazuen susmoren bat. Bazekien, gainera, «liburu guztien atzean beti dagoela liburu ezkutu bat». Bere zortea izan da «Iratik aurkitu izana liburu posible horietako bat».

Liburu berriaren azala jatorrizkoarena egin zuen Xabier Gantzaraini eskatu izanak sendotu egiten ditu, akrobataren irudiari esker, «elkarren lehengusu edo anai-arreba» izan daitezkeen bi liburuen arteko loturak.

TEATRO
ROBERTO HERRERO

Conferencia ilustrada

23F. Anatomía de un instante

Autores: Àlex Rigola, Javier Cercas.
Producción: Heartbreak Hotel, Titus Andronicus. Intérpretes: Pep Cruz, Xavi Sáez, Eduald Font, Roser Vilajosana. Dirección: Àlex Rigola.
Duración: Una hora y cinco minutos.
Lugar: Teatro Victoria Eugenia.
Fecha: 22-10-2021.

La propuesta de Àlex Rigola es de apariencia tan sencilla como de resolución arriesgada. Primero porque habla del golpe de Estado del 23F, que por una u otra circunstancia sigue levantando ampollas. Segundo, porque resume con pulso firme una historia río en poco más de una hora y no creo que se pueda decir que es un montaje superficial, aunque por momentos lo vistan con ropajes de aire carnavalesco.

Para los que ya teníamos en 1981 una edad suficiente para entender los hechos, este repaso con aire de conferencia dramatizada tiene un buen número de momentos emocionantes. Me pregunto que provocará en las generaciones más jóvenes. Un acierto es destacar lo que estuvo en juego sin caer en el adanismo político. Suárez surge como la figura central y al Rey se le pone en una cuarentena que puede parecer de contrapeso. Sea como sea, consiguen trasladar con eficacia e inteligente juego teatral aquel otro 'juego' que estuvo a punto de retrasarnos de nuevo al verdadero horario de invierno.

MÚSICA
CARLOS R. VIDONDO

Pasión por las masas corales

Día Coral

Intérpretes: Coros Andra Mari, Landarbaso, Eragiyok y Donosti Ereski Kultur Elkarte. Fecha: 22-10-2021.
Lugar: Lekuona Fabrika. Asistencia: 400 espectadores.

Expectación máxima y una larga cola a las puertas de la fábrica para la jornada coral de Musikaste. La pasión guipuzcoana por los coros se dejó ver en una de las tardes más abarrotadas que ha celebrado esta 49 edición.

De menos a más, cada coro dejó detalles de calidad, aunque fue la formación mixta Landarbaso la que quizá puso más carne sobre el asador. Su 'Zoriontasun hitzak' acompañado del acordeón, el violín y la pareja de bailarines de Oinkari resultó emocionante y muy bien engranada. No se corre ningún riesgo al asegurar que fue lo mejor de este Día Coral. El arreglo de 'Txoria txori' con el que se despidieron llenó de colores, nuevas armonías y líneas polifónicas el auditorio. Muy correcto Andra Mari en su formalidad y estatismo que, a pesar de colocar todo en su sitio, pecó por momentos de falta de atrevimiento. Los coros de Eragiyok -algo impresionados en la afinación- y Donosti Ereski -una amalgama sonora demasiado densa- se atrevieron con un repertorio complicado que les honra. El himno final, inmortalizado por las cuatro formaciones, puso el broche de oro.

IZARRAITZ PILOTALEKUAN

XXI. AZPEITIKO

ERREMONTA TXAPELKETA

2021

LOITEGI - BARRENETXEA IV
ILUNPE ELKARTEA

VS

URRUTIA II - LARRAÑAGA
ARDOZ ALEAK ELKARTEA

URRIZA - LABAKA
OILU SOKO ELKARTEA

VS

ANSA II - MARTIRENA
ZOKOA ELKARTEA

LIGAXKA
URRIAREN
- 23 -
© 22:00 H